

HAURRENGANAKO ERRESPETUAN OINARRITUZ HEZTEN

Azkoiako Xabier Munibe Haur Eskola 2004. urtean zabaldu zen, eta Haurreskolak Partzuergoaren sare publikoan dago.

Haur eskolako zerbitzua goizeko 07:30etik arratsaldeko 17:00etara arte dago zabalik, eta gurasoak nahi duen ordutegia egin dezake tarte horretan, betiere legeak agintzen dituen zortzi orduak gainditu gabe. Bestalde, malgutasuna dute haur eskola itxeko ordua behararen arabera atzeratzeko.

Haur eskola 8 gelaz osatua dago, eta 0-2 urte arteko haurrentzat da.

0-1 urtekoen gela gehienez zortzi haurrez osatua egoten da, eta 1-2 urtekoen gela hamahiru haurrez. Bakoltzak une oro bi hezitzaileen laguntza izaten du. Horrez gain, aire zabaleko bi espazio handi ditu, eta baita psikomotrizitate lantzeko gela bat ere.

Haurrenganako errespetua

Urte hauetan, bertako hezitzaile taldeak hobetu egin du lan egiteko modua, hainbat prestakuntza jaso baititu eta horrek ematen duen esperientziak baliatu baita. Lan lido horren oinarria haurren ongizatea bermatzea da, hau da, haurra haur eskolan lasai, seguru eta pozik sentitzea. Horretarako, haur bakoltzaren beharrak asetzen salatzan dira, bakoltzaren eritmoa errespetatuz.

Haurren eritmoa arlo guztietan errespetatzen dute: atsedenean, jatorduetan, higienean, baita mugimenduan ere.

Jarduera autonomoa

Haurrak, bere kasa "atseginenez eginez", esperientzia ezberdinak bizitzen ditu eta horrek garapen motor nahiz kognitibo orekatua lortzen laguntzen dio.

Haurrak momentu oro jolas librean ibiltzen dira, eta hezitzaileek espazioa eta materiala hainbat modutan aurkezten dute. Haurren garapenaren arabera, era askotako materialak eskaintzen dituzte: hondar kutxa, jolas heuristikoa, aurre jolas sinbolikoa, altzorraren saskia... Haurra, gauzak manipulatzu, "ikasten" ari da une oro.

Harreman afektibo pribilegiatua

Helduaren eta haurren arteko interakzio momenturik garrantzitsuenak gorputz zainketan datza. Momentu horietan (pixoihala aldatzean, jatean...), haurra eta heldua elkar ezagutzen hasten dira. Hezitzaileek haurri adierazten dio nor den, zer pasatzen zalon, zer egiten dion eta berak zer egiten duen, bere ingurunea zein den eta abar. Horrela, haurrak beraren eta ingurukoaren kontzientzia hartzen du.

Aire zabaleko bizitza

Xabier Munibe Haur Eskolako hezitzaileek garrantzi handia ematen diote aire librean eta naturarekin harremanetan bizitzeari. Garbi dute kanpoko espazioan dabilzan haurrak ikasten ari direla.

Gure ingurunean eragin dezaketela ikasten dute, gauzak alda daitezkeela, eta, aldi berean, ekintza zehatz batean kontzentratzen ere ikasten dute.

Nahi den emaitza lortzeko arazotzen ikasten dute, eta sortzaileak izanik egoerel originaltasunez aurre egiten; gaitasun hori ezinbestekoa da une oro aldatzen dabillen mundu honetarako.

Bide horretatik, haurren garapen orekatua eta osoa lortzea dute helburu, eta horretan dihardute eguneroko jardunean.

